ANTZUOLAKO UDALA

lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

Europar Batasunak kofinantzatuta
Cofinanciado por la Union Europea

BANDOA

GAIA: HIRU GAZTE KONTRATATZEA – BI ADMINISTRARI ETA KALE-GARBIKETARAKO PEOI BAT

Antzuolako Udalak hiru gazte kontratatuko ditu 12 hilabetez, lanaldi osoan, 2026ko abenduaren 1etik aurrera, Lanbidek finantzatutako eta Europar Batasunak kofinantzatutako programa baten bidez:

- Administraria (2): Erregistroa, espedienteen izapidetzea eta artxiboa; eta udal artxiboaren antolaketa eta digitalizazioa.
- Kale-garbiketarako peoia (1): udal brigadarekin, bide-seinaleztapena, hiri-altzariak, garbiketa, berdeguneak eta mantentze-lanak.

Gutxieneko baldintzak

- 16 urtetik gora eta 30 urtetik behera izatea.
- Langabezian egotea eta Lanbiden izena emanda egotea.
- Gazte Bermearen Sisteman izena emanda egotea.
- Administraria: erdi- edo goi-mailako heziketa-zikloa (administrazioa eta kudeaketa edo antzekoa) edo batxilergoa; 3. hizkuntza-eskakizuna (C1).
- Peoia: Oinarrizko Lanbide Heziketa, profesionaltasun-ziurtagiria edo DBH; 1. hizkuntza-eskakizuna (B1); B gidabaimena.
- Udal honek 2025eko programan kontratatua ez izana.

Nola eman izena

Interesa duten pertsonek LANBIDEN eman beharko dute izena, lanpostu bakoitzeko eskaintzan, 2026ko azaroaren 13a baino lehen. Oinarri osoak Udaletxean eta udal webgunean daude eskuragarri.

Informazio gehiago: Maria Pilar Garmendia Miguel, idazkaritza@antzuola.eus.

ANTZUOLAKO UDALA

lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

Europar Batasunak kofinantzatuta
Cofinanciado por la Union Europea

Europar Batasunak kofinantzatua · Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa

Antzuolan, 2026ko urriaren 26an.

Alkatea,

Olatz Lezeta Urzelai

OLATZ LEZETA URZELAI - 15394724L

Firmado digitalmente por OLATZ LEZETA URZELAI - 15394724L
Fecha: 2026.10.27 12:12:46 +01'00'